



209/2015, de 1 de octubre

## FORU DEKRETUA

Idazkaritza Orokorra  
Espedientea: 11/2015

### **Arabako Foru Aldundiko diputatuen eta goi karguen bateragarritasunari buruzko adierazpena**

Estatuko zein autonomiako ordenamendu juridikoak eta foru ordenamenduak inpartzialtasunez eta objektibotasunez jokatzeko eskatzen die kudeatzaile publikoei kargua diharduten administrazioan beren gobernu eta zuzendaritza funtzioak betetzerakoan, helburua baita beste interes edo jarduera batzuek ez dezatela funtzio horiek betetzea oztopatu ezta baldintzatu ere, eta ondorioz, kudeatzaileen objektibotasuna, independentzia eta inpartzialtasuna arriskatu. Halaber, eskatzen die jarduteko gardentasunez, legezkontasunez eta interes publiko eta pribatuen arteko gatazkarik sortu gabe. Kargu publikoaren eginkizunen inpartzialtasuna, independentzia eta betekizun horiek zorrotz betetzen direla babestea nahikoa arrazoi dira bateragarritasuna ukatzeko, baldin eta horiek guztiak kaltetzeko arriskurik txikiena badago.

Arabako Lurralde Historikoaren erakunde antolaketari buruzko 1983ko Foru Arauak eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, jasotzen dute hein batean bateraezintasunei buruzko foru araudia.

Aipatutako foru arau horien arabera -bat datozenak estatuko eta autonomiako legediekin-, foru diputatuen eta goi karguen dedikazioa eksklusiboa da oro har, eta bakarrik hautsiko da zenbait jarduera publiko edo pribaturekin bateragarritasuna onartzen duten kasu jakin batzuetan. Bateraezinak dira beste edozein jarduerarekin (lanekoak, profesionalak, merkataritzakoak edo industrialak), baldin eta jarduera hori ez bada irakaskuntza edo unibertsitate ikerketa. Halaber, bateraezinak izango dira instituzio publiko edo pribatuetan izendapeneko beste kargu batzuk betetzearekin, diputatu edo goi kargu izatearen ondoriozkoak direnak salbu. Diputatu karguak eta goi karguak betetzea eta herri ordezkotzako beste kargu publiko batzuk betetzea bateragarria den hauteskunde legeek xedatzen dute; izan ere, horien arabera hautaezintasun kasuak direnak bateraezintasun kasuak ere badira.

Martxoaren 30eko 3/2015 Legeak (BOE martxoak 3), Estatuko Administrazio Orokorreko goi karguen jarduna arautu eta apirilaren 10eko 5/2006 Legea indargabetzen duenak, jasotzen du estatuko bateraezintasun erregimenari buruzko araubidea, zeina aplikagarri baita, otsailaren 18ko 7/2008 Foru Arauak (6/2010 Foru Arauak aldatu zuen hura), Arabako Foru Aldundiaren, jardueren eta ondasun eta interesen erregistroak arautzen dituenak, 2. xedapen gehigarrian ezarritakoaren indarrez -autonomiako arauak bateraezintasunen erregimenari buruz (Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (EHAA, 2014-08-01) indargabetu duen abenduaren 20ko 32/1983 Legeak arautu zuena) ezarritakoa aldatzerik onartzen ez den bitartean-, ez foru arauak ez autonomiako legediak aurreikusten ez dituzten kasuetarako.



Arau horiek hauxe jasotzen dute: karguaren dedikazio eskusiboa; irakaskuntzarekin bateragarritasuna, baldin eta ez bada urtean 70 ordu baino gehiago ematen; bateragarritasuna herri ordezkotzako kargu publikoekin, baldin eta kargua ez bada dedikazio eskusibokoa edo dedikazio partzial finkokoa; inhibizio eta abstentzio beharkizuna, zuzentza edo gobernu organoetan parte hartu duten enpresa, sozietate edo erakundeek izapidetzen parte hartu duten gaietan edo horiei dagozkien gaietan, harremana hasi aurreko bi urteetan, bai eurak bai euren ezkontide edo izatezko bikotea, edo odol edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren maila arteko familia, edo hirugarren pertsonak, horiekin interes partekatua badituzte; ondare mugak sozietateen partaidetzetan, kontratuak eta itunak izan, azpikontratatuak izan edo kasuan kasuko sektore publikotik etorritako dirulaguntzak jaso; debekuak kargua uzten denetik bi urteko epean...

Hori dela eta, adierazpenean borondatez jasotzen dira foru arduradunek egindako jarduerak izendatu aurreko bi urteetan, ez baita aurreikusten ez 7/2008 Foru Arauan ez bere garaian onartu zen jarduera adierazpenaren ereduari.

Hortaz, foru diputatuaren eta goi karguaren bateragarritasunari buruzko ebazpena emateko, kargudunak izendatu eta hilabeteko epean haiek nahitaez aurkeztu beharreko jardun adierazpena kontuan izateaz gain, ondasun eta interesen adierazpena ere hartzen da kontuan, bateraezintasun arrazoiak eta bateraezintasunezkoak izan daitezkeen kautelazko arrazoiak ondorioztatu daitezke eta handik, edo abstentzio eta inhibizio arrazoiak, foru arauan jasota ez dauden arren ordezkari aplikatu beharreko araudian jasotzen direnak, harik eta onartzen den arte diputatuaren bateraezintasunak eta interes gatazkak arautzen dituen foru araua, osatuko duena modu integratuan eta osoan bateraezintasunak, mugak eta betebeharrak, eta zehapen araubidea.

Hauexek dira foru agintari eta goi kargu guztiek aurkeztutako adierazpenetan jasotzen diren datuak:

Diputatu nagusia	<b>Ramiro González Vicente</b> 2015eko ekaina: jarduneko abokatu izatetik baja
Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua	<b>Maria Pilar García de Salazar Olano</b> 2015eko uztaila: Segurtasun Sailean Ertzaintzaren 2016ko plan estrategikoan aholkulari izateari utzi 2015eko ekaina: Arabako Biltzar Nagusietako biltzarkidea
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua	<b>Maria Cristina González Calvar</b> 2015eko ekaina: Arabako Biltzar Nagusietako biltzarkidea UHUNeko irakasle-tutorea: 70 ordu urtean
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua	<b>José Luis Cimiano Ruiz</b> 2015eko uztaila: Arabako Foru Aldundiko funtzionarioa zerbitzu berezietan
Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua	<b>Beatriz Artolazabal Albéniz</b> 2015eko uztaila: Osakidetza Ekonomia eta Finantza zuzendari izateari utzi
Nekazaritza Saileko foru diputatua	<b>Eduardo Aguinaco López de Suso</b> 2015eko uztailan: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza zuzendari izateari utzi
Bide Azpiegituren eta	<b>Jesús María López Ubierna</b>



Mugikortasunaren Saileko foru diputatua	2015eko urtarrila: EAeko Administrazio Orokorreko funtzionarioa zerbitzu berezietan 2015eko ekaina: Arabako Biltzar Nagusietako biltzarkidea
Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua	<b>Igone Martínez de Luna Unanue</b> 2015eko ekaina: Dulantziko Udaleko zinegotzia, dedikazio eta ordainsaririk gabe
Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua	<b>Jose Antonio Galera Carrillo</b> 2015eko uztaila: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuorde izateari utzi
Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria	<b>Nekane Zeberio Ganzarain</b> 2015eko iraila: EITBko idazlari postuan nahitaezko eszedentzia
Komunikazio zuzendaria	<b>Elena Ferreira Sebastián</b> 2015eko uztaila: EAJ-PNV biltzarkide taldeko prentsa aholkulari izateari utzi
Lurralde Orekaren zuzendaria	<b>Iñaki Guillerna Sáenz</b> 2015eko ekaina: Kuartangoko Udaleko alkatea, dedikazio eta ordainsaririk gabe 2015eko uztaila: Estatuaren Zerga Agentziako funtzionarioa zerbitzu berezietan
Ekonomia Garapenaren zuzendaria	<b>Javier Hernando García</b> 2015eko iraila: Eusko Jaurlaritzako funtzionarioa zerbitzu berezietan
Araba Garapen Agentziako zuzendari-kudeatzailea	<b>Julio Guinea Martín</b> 2015eko iraila: aholkularitzan autonomo jarduerari utzi
Funtzio Publikoko zuzendaria	<b>Maria Jesús Carmen San José López</b> 2015eko abuztua: Eusko Jaurlaritzako bitarteko funtzionario izateari utzi
Zerbitzu Orokorren zuzendaria	<b>Juan Ignacio Urresola Arechavala</b> 2014ko uztaila: Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko bitarteko funtzionario izateari utzi
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria	<b>Juan Felipe García Miravalles</b> 2015eko uztaila: UGTko prestakuntza eta enplegu arloko teknikari arduradun postuan nahitaezko eszedentzia
Ogasun zuzendaria	<b>Teresa Viguri Martínez</b> 2015eko uztaila: Arabako Foru Aldundiko funtzionarioa zerbitzu berezietan
Finantza eta Aurrekontu zuzendaria	<b>Iñaki Aldekozarai Labaka</b> 2015eko iraila: Eusko Jaurlaritzako funtzionarioa zerbitzu berezietan
Gizarte Zerbitzuen zuzendaria	<b>Jose Luis Alonso Quilchano</b> 2015eko uztaila: Mainatzen, SLko Arabako ordezkari izateari utzi
GOFeko zuzendari kudeatzailea	<b>María Milagros Lopez de Aberasturi Ortiz</b> 2015eko iraila: Osakidetza Arabako Unibertsitate Ospitalean zerbitzu berezietan
Nekazaritza zuzendaria	<b>Alfredo Saez de Castillo Beltrán de Otálora</b>



	2015eko iraila: Arabako Foru Aldundiko funtzionarioa zerbitzu berezietan
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria	<b>Maria Ángeles Gutiérrez Ondarza</b> 2015eko uztaila: Gasteizko Udaleko zinegotzi izateari utzi
Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria	<b>Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano</b> 2015eko uztaila: IVApeko koordinazio eta kudeaketako idazkaritza orokorrean egoteari utzi
Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria	<b>Amaia Barredo Martín</b> 2015eko uztaila: Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendari izateari utzi 2015eko abuztua: Euskaber, SLko idazkari-aholkulari izateari ukoa

Foru agintari batek ere ez du adierazi ordainsari edo pertzepziorik jasotzen duenik ez administrazio publikoen edo haien menpeko erakundeen aurrekontuen kontura, ez zuzenean edo zeharka jarduera pribatu batetik. Kasu honetan ez dira sartzen Biltzar Nagusietako organoetako bilkuretara joatearren jasotako ordainsariak.

Adierazpena egin duten agintari edo goi karguetatik, bat ere ez dago ondare mugen eraginpean sozietateen partaidetzetan, edonolako kontratuak edo itunak izan foru sektore publikoarekin, edo enpresa horien azpikontratatuak izan, edo foru sektore publikotik etorritako dirulaguntzak jaso.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan, hauteskundeenean, eta Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskunderi buruzko 1/1987 Legean xedatutakoaren arabera, foru diputatu eta/edo goi kargu izatea bateragarria da Biltzar Nagusietako biltzarkide, alkate edo udaleko zinegotzi izatearekin; bateraezintasun bakarra da diputatu nagusiaren kargua, erakunde antolaketari buruzko arauan jasotzen denez.

Horregatik, egindako adierazpenak eta Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren buruak egindako aldeko txostena aztertu ondoren, dagozkidan eskumenez baliatuz, ondoko hau

### XEDATZEN DUT

**Lehenengoa.-** Adieraztea hauek ondoko karguan jarduteko bateragarritasuna dutela:

Ramiro González Vicente	Diputatu nagusia
María Pilar García de Salazar Olano	Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatua
Cristina Gonzalez Calvar	Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
José Luis Cimiano Ruiz	Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
Beatriz Artolazabal Albeniz	Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua
Eduardo Aguinaco Lopez de Suso	Nekazaritza Saileko foru diputatua
Jesús María López Ubierna	Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua



Igone Martínez de Luna Unanue  
José Antonio Galera Carrillo  
Nekane Zeberio Ganzarain  
Elena Ferreira Sebastián  
Iñaki Guillerna Saenz  
Javier Hernando García  
Julio Guinea Martín  
M<sup>a</sup> Jesús Carmen San José López  
Juan Ignacio Urresola Arechabala  
Juan Felipe García Miravalles

Teresa Viguri Martínez  
Iñaki Aldekoarai Labaka  
José Luis Alonso Quilchano  
María Milagros López de Aberasturi  
Ortiz  
Alfredo Saez de Castillo Beltrán de  
Otálora  
María Angeles Gutiérrez Ondarza  
Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbigano  
Amaia Barredo Martín

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua  
Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua  
Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria  
Komunikazio zuzendaria  
Lurralde Orekaren zuzendaria  
Ekonomia Garapenaren zuzendaria  
Araba Garapen Agentziako zuzendari-kudeatzailea  
Funtzio Publikoko zuzendaria  
Zerbitzu Orokorren zuzendaria  
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren  
zuzendaria  
Ogasun zuzendaria  
Finantza eta Aurrekontu zuzendaria  
Gizarte Zerbitzuen zuzendaria  
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-  
kudeatzailea  
Nekazaritza zuzendaria  
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria  
Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria  
Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

**Bigarrena.-** Foru dekretu hau Gardentasun Atarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz.

**Ramiro González Vicente**  
Diputatu nagusia  
Diputado General